



Arte Ederren Fakultatearen deialdia, EHUKulturaren parte-hartzearekin:

Interbentzioak Deustuko zubiko jasotze-makineria gordetzen duen etxolan.

Norentzat: UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Gradu, Master eta Doktoregoko ikasleak.

Halaber, Espainiar Estatuko unibertsitate publikoetako Arte Ederren fakultate batean matrikulatutako ikasleen proiektu bat ere aukeratuko da, gutxienez.

Epea: 2018ko urriaren 15era arte

Helburua

Proiektu artistiko bat garatzea Deustuko zubiko etxolan.

Baldintzak.

Interbentzioek alderantzgarriak izan behar dute. Hau da, interbenitutako elementuek euren jatorrizko egoerara itzuli behar dute proiektua amaitzen denean. Interes historikoa duen elementu bat denez, ezin interbenitu daiteke eraikinaren egituren, ezta haren kanpoko itxuran ere.

Publikoa ezin sar daiteke etxolaren barnealdera. Beraz, interbentzioa kanpora begira egiten da.

Erakusketak hiru aste eta hilabete bitartean iraungo du.

3-4 proposamen aukeratuko dira gauzatzeko, eta gutxienez horietako bat Espainiar Estatuko Arte Ederren beste fakultate bateko ikasleena izango da.

200 € egongo dira eskura ekoizpenerako eta 200 € interbentzioaren ordainsari gisa. UPV/EHUtik kanpoko ikasleen kasuan, beste 200 € eskuratu ahal izango dituzte bidaia-poltsa gisa.

Muntaketa eta ekoizpenari buruzko aholkua eskainiko da.

Betekizunak

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Gradu, Master edo Doktoregoko ikaslea izatea, edo unibertsitate publiko bateko Arte Ederren beste fakultate batekoa.

Izangaiaren Curriculum laburra

Garatu beharreko lanaren proiektua, pdf formatuan (gehienez 2Mb)

Lan pertsonalari buruzko dokumentazioa/portfolioa. (gehienez 2Mb)

Epeak

Dokumentazioa bidaltzea: 2018ko urriaren 15era arte –astelehena-, helbide honetara: puentededeusto@gmail.com

Informazio gehiago

Aurreko edizioetako interbentzioak hemen ikus daitezke:

<http://artepuentededeusto.blogspot.com.es/>

Informazio gehiago, irudiak eta leihoen planoak: puentededeusto@gmail.com

Instalazioak bisitatu ahal izango dira hemendik gutxira jakinaraziko diren egunetan.

Etortzeko asmorik izanez gero, ezinbestekoa da hori konfirmatzea helbide honetan: puentededeusto@gmail.com